

# Amaitu dira abesti nareak

Une taldeak pop eta metal doinuekin jantzizko rocka jorratu du plazan jarri duen lehen diskoan

**IRUNE BERRO**  
Bilbo

Latzen eta Seneko abeslari izandako Aitor Uriarteren talde berriaren lehen diskoak tarte lasairik ez du. Une du izena taldeak. Eta Rober Garzia gitarristak, Karmelo Aretxaga *Melows* baxu jotzaileak eta Xabi Oraa Zumarraga bateria jotzaileak osatzen dute, Uriarterekin batera. Patxadaz grabatu dute lehen diskoa, astia izan dute konponketak egiteko. Haatik, izenak adierazten duenez, lasaitasunak lekurik ez du Oihuka disketxearen eskutik atera duten lanean. *Une nare eza*.

Rock indartsuak tarte handia du Unek kaleratu duen lanak jasotzen dituen 11 abestietan. Baina popeta metal ukituare badute, Ritxi Aizpuru Oihukako ordezkariak adierazi duenez. Haren irudiko, Uriarteren eragina nabarmena da taldean. «Aitor metaletik dator, baina hemen lasaigo abestu du, nahiz eta bere ibilbidea ez duen bazter utzi. Melodia indartsuak dituzte abestiek, baina haiei jarraitzeko ez du ahotsaren handinahia erakutsi behar izan. Abestu beste-rik ez du egin». Aizpuruaren arabera, «Euskal Herriko abeslaririk onenetakoa da Uriarte».

Alta, kantuen hitzek pop kutsurik ez dutela batere uste dute Uneko musikariek. Denen artean egin dituzte abestien doinuak. Hitzak, berriz, Uriarterenak dira. «Nahia- go dut nik idatzi dudana abestu, beste batek idatzi duena baino», esan du Une taldearen gidariak. Erosago sentitzen da. Badaki zer ari den esaten, eta zergatik ari den esaten. Heriotzaz hitz egin du abes-



Une taldeko musikariak, atzo, Bilbon, diskoa aurkeztu aurretik. LUIS JAUREGALITZ / ARGAZKI PRESS.

ti askotan, eta bizitzaz. Bere bizipenen zertzeladak dira abestien hitzak, azaldu duenez. «Musikak narama gaietara. Abesti bat egiten hasi eta musika horrek transmiti- tzen didanaren inguruan egiten ditut abestiak. Unean uneko bizipene- nek eragin handia dute».

2004an sortu zuten Une. Uriarte harremanetan jarri zen gainerako

**«Musikak narama gaietara, unean uneko bizipenek eragin handia dute kantuen hitzetan»**

**«Disko indartsua egin dugu, baina baditu une lasaia ere bai, nahiz eta gutxi izan»**

AITOR URIARTE  
UNE TALDEKO ABESLARIA

musicariek. Artean izenik ez zuen taldeak. Baina abesti batzuk egiten hasiak ziren. Hala, 2005ean maketa bat atera ondotik, lehena izango zuten diskoa egiteko abestiak sortzeari ekin zioten, buru- be- larri. Ez zuten aurrez zehaztu zer- nolako abestiak sortuko zituzten, rockera edo popera joko zuten. «Eta disko indartsua egin dugu», esan du Uriarte, «baina baditu une lasai batzuk ere bai, nahiz eta gutxi izan». Une taldearen musika Senena baino gogorragoa dela uste du, baina Latzenena baino lasaia- goa. «Latzen eta Senen arteko tal- dea da», haren hitzetan.

**BIDEOKLIPAK ETA ARGAZKIAK.** Inigo eta Mikel Santos teknikariek grabatu zituzten *Unenare eza* diskoako abestiak, urtarrilean, Ondarroako (Biz- kaia) Santos Records estudioan.

Plazan jarri berri duten diskoak gainera, *Bihozkadak* eta *Hemen* abestien bideoklipak eta taldearen hainbat argazki biltzen dituen CD-ROMa dakar. *Melows* baxu jotzaileak grabatu ditu biak. Hori- tako bat, *Hemen* abestiarena, Bil- boko Santana 27 aretoan grabatu dute. Kontzertu antzeko bat eman zuten bertan eta primeran pasatu zuten, musikariek kontaktu dute- nez. Hortaz, kontzertuak emateko irrikari izan. Dagoeneko lotu di- tuzte batzuk. Lehenengo biak Biz- kaian emango dituzte, Basaurin le- hena (urriaren 7an) eta Durangon bigarrena (urriaren 12an). Nafa- rroa Oinezen ariko dira urriaren 15ean, Beran. Azarotik aurrera hainbat kontzertu emango dituz- te, Kautarekin batera. Hitzordu horien berri taldearen web orrian emango dute: [www.unekin.com](http://www.unekin.com).

## 'Performance' jaialdia antolatu dute Baiona, Miarritze eta Angelun

**ANTZERKIA** - Lezards qui bougent konpainiak antolatuta, *Rencontres Improbables* jaialdiak Frantziako, Kanadako, Suitzako, Danimarka- ko, AEBetako, Greziako eta Euskal Herriko hainbat talderen *performance*-ak emango ditu ezititik urriaren 20ra Angelu, Miarritze eta Baionan. «Sorkuntza garaiki- dearen alderdi ezkutua azalduko dute laneak», antolatzaileen ustez.

## Madariaga, Estankona, Suarez eta Benitoren poemak 'sérieAlfa'-n

**LITERATURA** - Juan Ramon Madariaga, Castillo Suarez, Igor Estankona eta Jon Benitoren poemak argitaratu ditu Valentziako *sérieAlfa* aldizkariak 31. zenbakian. Miren Agur Meabek egin du hautaketa, eta poema bakoitzaren euskarazko bertsioaren alboan katalanezkoa eta gaztelaniazkoa daude. Katala- nezko itzulpenak Joan Navarrok egin ditu, gaztelaniazkoak Castillo Suarezek eta Miren Agur Meabek.

## 'Idomeneo' opera kentzea gaitzetsi du Merkel kantzilerrak

**OPERA** - Alemaniako kantziler Angela Merkelek gogor gaitzetsi du *Idomeneo* opera Berlingo Deutsche Oper antzokiko eskaintzatik kanpo uztea. Jasotako mehatxuen ondorioz kendu zuten *Idomeneo* antolatzaileek. Merkelen hitzetan, «onartezina da beldurraren ondo- rioa den autozentsura hori».

## Mexikok 'En el hoyo' izendatu du Goya sarietarako hautagai

**ZINEMA** - Juan Carlos Rulforen *En el hoyo* eta Guillermo del Toroen *El laberinto del fauno* dokumenta- lak aukeratu ditu Mexikoko Zine- ma Akademiak Goya eta Oscar sa- rietan parte hartzeko hurrenez hurren. *En el hoyo* herenegun eman zuten Amerika Latinoko Zi- nemaren Miarritzeko Jaialdian.

## Urteurrenoko diskoa osatu du Luis Iruarrizaga abesbatzak

**MUSIKA** - Taldea sortu zela 25 urte betetzen direla ospatzu, Luis Iruar- ritzaga abesbatzak urteurren dis- koa ekoitzi berri du. Arratiako es- kualdeko hainbat poeta eta musi- karik taldearen omenez idatzitako bi lan berri bildu dituzte.

## Gizon orkestra

**kritika**

**MUSIKA**  
DOMINIQUE A

**JOSEBA MARTIN**

Astearte izan arren ia erdi- raino bete zen aretoa. Eta gainera ingelesaren men- pean ez dagoen artista bat ikuste- ko. Frantzia aldetik datorkigun Dominique Anek zazpi album bete du oraindik eta horko belaualdi berriaren onenen artean dugu, François Breut, Yann Tiersen edo

Benjamin Biolayrekin batera. Be- raz, badaki nola erabili teknologia berriak. Gauzak horrela, bakar- bakarrik agertu zen agertokian, bi gitarrarekin. De Armand elektri- ko urdinaz baliatu zen batez ere kantuen oinarri sendoa ehuntzen. *Loop* jokoen bidez, ohe zabala lor- tzen zuen gainetik gitarrarekin li- bre abiatzeko, ahotsaz ere zenbait joko asmatzen zuelarik, kasu ho- netan mahai teknikariaren lagun- tzaz.

Adin ezberdinetako entzuleek osatzen zituzten aurreko lerroak (batzuk gazte-gazteak ziren) eta

polita zen kantu gehienak nola ahoskatzen zituzten ikustea. Do- minique A-k frantsesez kantatzen du dena, baina gaztelaniaz eta in- gelesaz ere baliatu zen azalpenak emateko, euskara ahaztu gabe. Esate baterako, zortzi urteko se- mea gogoratu zuenean gitarra akustikoa hartu baino lehen, *Les enfants du Pirée* klasikoak egiteko (Dalidak kantatzen zuten 1960ko *Jamais le dimanche* filmean). Eta horrela doaz kantuak, arin-arin, bata bestearen atzean.

Ordua bete eta gero agur esan- gun, bi aldiz bueltatzeko. «Hau or- kestra», oihukatu zuen neska ba- tek eta egia zen, batez ere azken atalean gitarrak biolin sutsu sek- zio osoa ematen zuenean. Lehe-

nengo bisean funky-popari ekin zion Talking Heads berarekin egongo balira bezala. Lasaia go- bueltatu zen bigarren bisean, jen- dearen eskaintza betetzeko. Eta es- perantoz amaitu zuen Naonedeko lagunak, denetarikoz hizkuntzak elkartuz, orain bai, jendea ase.

Kantuen artean *L'horizon, Le courage des oiseaux* (oso txalotua), *Antonia, Pour la peau, Dans un ca- mion* (bikaina) edo, entzule batek eskatutako *Le commerce de l'eau* ederra. Gizon orkestrak primera pasa zuen, baita guk ere.

**Lekua:** Bilboko Kafe Antzokia.

**Eguna:** Irailak 26.

**Jende kopurua:** 300 lagun.

**Iraupena:** Ordubeta eta 20 minutu.